




>> Lan-istripuak

LAN-ISTRIPUEK ERAGITEN DITUZTEN KAUSAK:

Istripuak, langileek ekintza desegokiak egiten dituztelako gertatzen dira edota ekipoak, tresnak, makineria edo lantokiak baldintza egokietan ez daudelako. **Istripuen prebentzio** printzipioak adierazten du istripu guztiek dituztela haiek eragiten dituzten kausak eta saihestu daitezkeela eragiten dituzten kausa horiek ezagutu eta kontrolatzean.



1) KAUSA TEKNIKOAK: Baldintza arriskutsuak edo ez seguruak:

Lan-eremuan dauden baldintzen menpe dagoen arrisku-faktorea da. Zenbait adibide:

- Ekipo eta makineriaren prebentzio-mantentzerik ez egotea.
- Banakako babes ekiporik ez izatea.
- Lantokietan baldintza desegokiak.
- Seinaleztapenik eza.
- Lan-ekipoek segurtasun gailurik ez izatea.
- Enpresa eta langileen arteko komunikaziorik eza.
- Lan prozedura txarrak.
- Orden eta garbitasunik eza.
- Instalazio elektriko desegokiak.

.....

2) GIZAKIAK ERAGINDAKO KAUSAK: Ekintza ez seguruak: Istripua eragiten duten praktika desegokiak ondorioz laneko arauak edo prozedurak hausten



direnean, hau da, langilearen jokabideari dagozkionak dira (deskuidua, beldurgabekeria, konfiantza gehiegikeria,...).

Konfiantza gehiegikeria
Banakako babes-ekipoak ez erabiltzea
Langilearen zuhurtziagabetasuna
Egin beharreko jarduera eta lanetan ezaguerarik eza
Postura ez seguruak hartzea
Lan prozedura txarrak
.....

3) KAUSA MISTOAK: TEKNIKOAK ETA GIZAKIAK ERAGINAK

Lan- istripuak saihestu daitezke: lan-eremuan dauden **BALDINTZA EZ SEGURUAK** eta langileen **EKINTZA EZ SEGURUAK** etengabe zainduz.